



LIBURUA

# Porrotez



## MAITASUN KEINU BAT BESTERIK EZ HASIER ARRAIZ

EREIN, 2019

### IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**O**nartuko dut: alaitasun indize nazionala jaitsi egin dut *Utriusque* argitaletxeak haren jardunari utzi zionetik. Falta nabaritu dut kritika literarioa sail propioarekin argitaratzen zuen etxearena. Imajinatuko duzu beraz, *Maitasun keinu bat besterik ez* dendako apalategietan ikusteak eragindako poza. Erein-ek argitaratu du Hasier Arraizen testua eta aitortzekoak dira bataren apustua eta bestearen lana. Kritika literarioa desesperazioz irakurtzen dugunok oraindik gabiltza liburua ospatzen.

Bozkario eta jolgorio artean bada-go elkarrizketarako tartea. Gramscik zioen originaltasuna aurretik esandakoeekin elkarrizketan eta esandako horien berrantolaketan sortzen zela. Hain justu, horrelako gutxi ikusi dut

*Maitasun-en*, hau da, elkarrizketa bota dut faltan.

Aztergai dituen literatura idazleez gain, hirurehun orritako analisiak, lau autore euskaldun aipatzen ditu. Hiru orri eta berrogeita hamar erreferentzia inguruko bibliografian gutxi iruditut zait. Euskaraz ez jakiteagatik euskal gaiez erdaratan argitaratzen dutenen artean arrunta da hori. Agerian uzten du gure debateetara iristea zail zaie-la. *Maitasun-ek* bestalde, euskarazko sortzaileekin elkarrizketa ekidin duela dirudi.

Adibide bi. Euskarazko kritikariek liburua dio, “gurea bezalako literatura sistema txiki batean [...] baten bat egongo ze[n] Kirmen Uriberen porrotaren zain”. Herri mugimenduez: “Gizarte arazo zehatz baten aurrean sortzen dira, arazo

hori konpon dadin jarduten dute eta arazoa konpontzean desagertzen dira”.

Uste dut bi kasuetan elkarrizketa ekidin egin dela. Kritika negatiboen faltaz eta beharraz hitz egiten ari garen garaiotan, ez zait iruditzen kritikaria horrela erretratatzek laguntzen duenik. Herri mugimenduei dagokienez mugimenduen arteko elkarrizketez eta aliantzez irakurri dugu ARGIAN bertan. Iruditu zait liburuak bi eztabaida zabal horiekin topo egin bai, baina ez duela asmatu kritikarien edo mugimenduen ahotsa ekartzen.

Guztiagatik, pentsamendu kritikoa-ren eztabaidak jarraitu nahi badituzu hankamotz geldo dakizuke *Maitasun*. Arraizen barne-mundua, filiak eta fobiak, literarioak eta politikoak ezagutzeko, hauxe da zure liburua. ●